

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA  
**Udaletxearen  
inaugurazioa /8**

UDAL HAUTESKUNDEAK  
**Hautagaiak aurkezpe-  
nak egiten hasi dira /9**

LEINTZ GATZAGA  
**Hauteskunde  
giroa /10**

## Tubos de Precisión lantokia, berpizturik

Ixtekotan egon ziren, baina  
zazpi langileren artean  
kooperatiba osatu eta indar  
berrituta dabilta lanean.

## TELEFONOJAKINGARRIAK

<b>OROKORRAK</b>	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkartea	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

## UDALTAINGOIA

Arrasate 943 79 14 39

## LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

## GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 10  
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

DOMEKA, 11  
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

## OHARRAK

### ANTZERKIA

Udaleko Kultura Sailak eta Loramendi EEko Tril emakume taldeak *Biblia osoa... gutxi gorabehera antzezlan* antolatuta dute. Antzerkia gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean, kirol etxean.

## LORAMENDIRENAGENDA

### HERRI URRATSERA JOATEKO AUTOBUSA

Domekan Herri Urrats izango da Senperen. Hara joateko autobusa antolatu du Loramendik. 09:00etan irtengo da Azbe lantegiaren ondotik. Loramendin eman behar da izena.

## ORAIN DELA 9URTE ARETXABALETAN

### Edukiontzi gehiago jarri zituzten kaleetan

Orain dela bederatzirte jarri zituen Debagoieneko Mankomunitateak beira, papera eta pilak batzeko edukiontziak Aretxabaleko kaleetan. Beira jasotzeko berdeak eta paperarendako urdinak; plastikozko ontziak batzeko edukiontziak, larreak, askoz geroago jarri zituzten.



## BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

### "Pausajia"

Ibiltzeko era, baldarra denean.  
— Solamentian eztauka pausaje jaso-jasua.



## LIBURUTEGIKOTXOKOA

### 'Denboraren izerdia'

Jon Ezenarro da nobela honetako protagonista. Madrilen bizi den gasteiztarra da, ezkontzotan dagoen zinema produktore arrakastatsua. Ezusteko handi batek eta amaren gaixoaldiak Gasteizera ekarriko dute. Tarte horretan familiarekin eta ezagun zaharrek egoteko aukera izango du.



### DENBORAREN IZERDIA

Xabier Montoia  
Elkarlanean, 2003  
221 orrialde

Azken baten kanpora joandako pertsonaia baten ikuspuntua azaldu nahi izan du nolabait Montoia, bertan daukagun ikuspegiarekin alderatuz eta azken 20 urteotako politikari buruzko hausnarketa bultzatuz. Idazlea bera narratzailea da; iritziak azalduz, baina inoren alde jarri gabe.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

## ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA  
**Maialen Lete**  
23an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Asier Méndez**  
26an. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Amaia San Vicente**  
30ean, 17 urte. Zorionak, asko maite zaituzten lagunen partetik.



ARETXABALETA  
**Iban González**  
1ean, 1 urte. Zorionak eta muxu bat, gurasoen eta etxeko partetik.



ARETXABALETA  
**Gaizka Agirre**  
2an, 6 urte. Zorionak, Markelen, Eñauten eta etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ugutz Rosado**  
2an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA  
**Jokin Isasisasmendi**  
5ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Unai Mendikute**  
5ean, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Doriren eta Luis Mariren partetik.




ARETXABALETA  
**Julene Rosado**  
7an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Eduardo Urkia**  
8an. Zorionak eta muxu handi bat, Garaziren partetik.




ARETXABALETA  
**Igor Gabilondo**  
9an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Felix Arrese**  
9an. Zorionak eta muxu handi bat, loba guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ainara Vazquez**  
9an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen partetik.



ARETXABALETA  
**Antonio Altube**  
10ean. Zorionak eta muxu handi bat, aitaita! Alaitz, Eñaut eta Manex.



ARETXABALETA  
**Aritz Maiza**  
11n, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Pedro J-ren eta Jeniren partetik.



ESKORIATZA  
**Miren Zubillaga**  
12an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



## PUBLIZITATE SAILA

Antonio Arguero Navarro  
Diseinu Grafikoa, Infografia, 3D  
Logotipoak, Spot Sortzaileak ...



## MARIAJESUS ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA

EZTEIAK, JAUNARTZEAK, MODAZKO "BOOK"-AK, PUBLIZITATEKO ARGAZKIAK  
ZAHARBERRITZEAK, INDUSTRIAKO ARGAZKIAK, NATURA HILAK  
ARGAZKI DIGITALAK, GIDABAIMENERAKO ARGAZKIAK ...  
Sustapenak eta deskontuak jaunartzetan eta ezkontzetan

ARABA IBILBIDEA 27 1-D  
943 771255 - 656 732463


ARETXABALETA (GIPUZKOA)  
shibat@wanadoo.es

Maiatzean  
**DENDA BERRIA**  
zabalik  
**HERRIKO PLAZAN**

## ATREBENTZIAEZPADA/ Alkategaixek herrikue izen biherko leuke? Eta euskeraz jakin biherko leuke?




**MIRIAM ARREGI**  
Langillie



**FRANCISCO MIGUEL**  
Jubilaue



**LARRAITZ IÑURRATEGI**  
Langillie



**SATUR BAUTISTA**  
Langillie



**PAKO MORALES**  
Langillie



**CAMILA MEJÍAS**  
Langillie

Bai, duda barik. Inportantie da, neure ustez, hurrengo alkatie hamengue izetie. Zergaittik? Herrixe hobeto ezagutuko dauelako. Eta euskeraz jakittie be kome-niko litzake.

Bai, duda barik. Hamengo alkate batek kanpoko batek baiño lan haundixague egingo dau bere herrixan alde, seguru. Eta alkate ize-teko euskeraz jakittie inpor-tantie dala uste dot.


Bai, duda barik. Herrittar-rak eta herrixe bera hobeto ezautuko dittuen alkate-gaixe eukittie da inportan-tiena. Eta kontuen hartute nun bizi garen, euskeraz jakittie ezinbestekue da.

Bai, uste dot inportantie dala hamen jaixotako eta hamen bizi dan alkatie eukittie. Ezer gertatu ezke-ro gertu eukiko geuke ara-zue konponketako. Eta eus-keraz jakin biherko leuke.

Bai, duda barik. Hamengo alkategai batek hobeto eza-gutuko dittu herrittarrak eta herrixe bera. Eta eus-keraz jakin biherko leuke; izen be, hamengo berbetie euskerie da...

Neure ustez bai. Herriko ordezkari izen gure badaue, derrigorrez ezaugutu biher daue herrixe. Horrek, gai-ñera, konfiantzie emuten dau. Eta euskeraz derrigo-rraz jakin biherko leuke.

### TXALOAKETATXISTUAK



**VENTA DE BAJOS Y GARAJES**  
Tlef. 943 700046  
Tlef. 943 700045

**TXISTUAK EUSKARAZ ERE BAI, MESEDEZ!** Euskararen norma-lizazio prozesuan denak dauka bere garrantzia, baita kaleko hor-ma-irudi eta iragarki kartelek ere. Batzuek non bizi garen ahaztu eta gaztelania hutsean jartzen dituzte euren oharrak. Bada, horien-dako aste honetako txistua eta, bide batez, ondorengo oharra: eus-keraz ere bai, mesedez!. /A.L.

### ETABARRUAN...

ENPRESA /04

ELKARRIZKETA /08

KIROLAK /10

#### Tubos berpiztuta

Tubos de Preci-sión lantokia ixtekotan egon baziren ere indar-berrituta dabil lanean.

#### Xabier Mendizabal

Udal hauteskun-deen aurrean zeregin ugari ditu Xabier Mendiza-bal Udaleko idazkariak.

#### Aretxabaletar bi Realarekin

Gillen Mar eta Beñat Etxabe gaztetxoek Realarekin txapelketak jokatzeko dihardute.

### ASTEKODATUA

# 21

#### LAGUN EGONGO DIRA HAUTESKUNDE MAHAIETAN

Aretxabaletako hauteskunde-mahaietan 21 lagun egongo dira aurten. Hala erabaki zuten joan de astean egindako zozketan. Nor-baitek huts eginez gero, 42 orde-zko ere aukeratu dituzte.

### BESTEKEESANA

**“Euskara da oparirik onena zioen kanpaina-k Gabonetako opa-riak egiterakoan eus-kerazko produktuak**


**kontuan hartzeko gonbita egiten zuen. Kanpaina abiatu zenetik eus-kerazko produktuen salmenta hiru-koiztu egin da.**

**Kanpainaren helburua ez da euskal produktuak diruz laguntzea, erakargarri bihurtzea baizik. Pro-dukutuak kontsumitzen direla ikusten badute, hemengo zein kanpoko argi-taletxe eta enpresek euskerazko produktuak ekoizti nahiko dituzte.**

**Euskerazko produktuen arazoa ez da kalitatea txarra izatea, pro-mozio egokirik ez dutela baizik. Kan-paina honekin, euskerazko produk-tuak batu eta erakustokietan kon-tsumitzailearen eskura jartzen ditugu”.**

**LOREA LEANIZBARRUTIA**  
‘Gara’/03-04-25

### HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



*Zorte on, guztioi*

**L**au aste barru gure herriaren nondik norako-ak zuzenduko dituz-tenak aukeratu behar ditugu berriro. Hain da hau garrantzitsua herriaren etor-kizunerako, hauteskundeok festa bat izan behar luketela. Baina ez da giro. Eta festa baino penitentzia itxura gehiago dute.

Lastima da hau-teskundeok horren giro nahasian izan beharra. Lastima da herritarron parte batek bere botoa emateko horrenbes-te traba aurkitzea. Lastima da alde bateko eta beste-koen arteko ezin ikusia. Lastima da abertzaleon artean elkarla-nerako kondiziorik ez izatea. Lastima da makropolitikak herri-politikan duen eragina. Lastima da talde politiko guz-tiek zerrendak osatzeko hain-beste arazo izatea. Lastima da herrigintzan parte hartzeko herritarron inplikazioa gero eta eskasagoa izatea.

Argi da, beraz, ez dela festa-rako arrazoi askorik. Eta benetan lastima handia da, datozen

lau urteotan udaletxea osatuko dutenek zeregin garrantzitsuei aurre egin beharko baitiete. Han behar genituzke herri-tarrak baliotsuenak, baina ero-soagoa eta seguruagoa da ze-zenak barreratik ikusi eta gus-tuko ez dugun guztia zorrotz kritikatzeko.

**“Bide honetatik jarraituz gero, zortzi, hamabi edo hamasei urte barru ez dugu inor kritikatzetik izango”**

Egia da bizi du-gun egoera nahasi honek ez duela inor motibatzen, baina bide honetatik ja-rraituz gero, zortzi, hamabi edo hamasei urte barru ez dugu inor kritikatzetik izango, ez baita inor izango kritikatzeko. Eta orduan zer?

Akabo. Herriaren alde inork egiten ez badu berez hilko baita, arnasa kentzen diotenari bezala. Astiro eta sufrimenduz, baina erremediorik gabe.

Horregatik nire txaloa hau-teskundeetara aurkezten diren guztiei. Eta aukeratuak izango direnei eskaera bat: izan gaitza-zue herritarrok beti zuen buru-tapenetan aukera hau edo bestea egiterakoan, zuen eraba-kiek luzerako eragina izango dute-eta.

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Golo Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Kirola eta antzerkia

Dagoeneko bukatu zaizkigu opor guztiak, eta orain hauteskundeetan sartuta gabilta. Giro nahasia dugu, gainera, Madrildik egurra besterik ez dator-eta. Ea herrietan behintzat euskaldunok batu, eta denon artean aurrera egiteko bidea topatzen dugun...

Politika alde batera utzi eta kirol kontuak dakartzat; izan ere, UDA-ko infantil mailako taldea mailaz igo da; ez hori bakarrik, txapeldunak izan dira. Zorionak, **Santi Morales** entrenatzaileari eta taldea osatzen duten mutiko guztiei.

Otala-Zelaiko krosa ere aipatu gura dut. Joan zen domekan egin zuten eta 25. urteurrena bete zuten, gainera. Parte-hartzea, ostera, behera doa, eta gero eta aretxabaletar gutxiago animatzen da. Ez dezagun gero galtzen utzi!

Joan zen zapatuan, bestalde, 20 mila eurotik gorako saria tokatu zitzaion Gurea tabernan loteria txartela bete zuen bati. A ze zorrea, ondo aprobeitza ditzala!

Zortedun gaude aretxabaletarrok ere, gaur antzerkira joateko aukera izango dugu-eta. Baina gurean antzerkia, *Biblia osoa... gutxi gorabehera*, eta Eskoriatzan Mikel Urdangarinen kantaldia. Edo bat ere ez edo dena batera. Zer da gero hau? Nahikoa lan aukeratzan...

M. J. Aretxaga

**ENPRESA/** Kooperatiba osatu dute zazpi langileren artean, eta esperotako salmentak %192 gainditu dituzte

# Tutuak egiten dituen Tubos de Precisión lantegia inoiz baino indartsuago dabil lanean

MIRARI ALTUBE

Abendu inguruan zabaldu zen herrian Tubos de Precisión lantegia itxiko ote zuten zurrumurrua. Ez da horrelakorik gertatu. Elkarte anonimo izatetik kooperatiba izatera pasatu da, eta inoiz baino indartsuago jarraitzen du tutuak egiten.

Lantegia ixtekotan egon ziren, baina ez da horrela gertatu, zazpi langilek kooperatiba osatu eta aurrera egin dute-eta, Miguel Angel Delgadoen ardurapean.

### ZAZPI LANGILEREN EKIMENA

Tubos de Precisión lantegi inguruan etxebizitzak eraiki behar zituztela zabaldu zen orain dela hilabete batzuk, eta horren ondorioz Tubos itxi egingo zutela. Izan ere, lantegiaren jabeek lursail bat enpresa eraikitzaile bati saldu zioten. Orduan 23 langile zebiltzan lantegian, eta horietako batzuek utzi egin zuten lan jarduera, jabeekin akordioa eginda. Zazpik, ostera, jarraitu egin dute, eta kooperatiba osatu dute.

### TUTUAK SALDU ETA SALDU

Tutuak egiten dituzte Tubos de Precisión lantegian: bizikleten



Tubos de Precisión lantegia ixtekotan egon ziren, baina orain inoiz baino indartsuago dabil lanean.

eta automobilen sektoretarako, etxetresna elektrikoetarako, siderurgia sektorerako eta beste hainbat sektoretarako tutuak.


Urte hasieran bideragarritasun ikerketa egin zuen Miguel Angel Delgado enpresako gerenteak, eta ezin hobeto hasi da koo-

peratiba berria. Estatuan saltzen dituzte tutu gehienak, eta esperotako salmentak dagoeneko %192 gainditu dituzte.



## Aretxa Plataforma aurkeztu dute ilegalizatu arren

Aretxa Plataformak aurkezpen ekitaldia egin zuen martitzen ilunkaran ilegalizatu-tako plataformen artean egon arren. Iñaki Iturri izango da alkategaia, eta Josu Atxaga, Dorleta Agirre eta Axu Cardenal hurrengo hiru hautagaiak. Iñaki Iturriren esanetan ilegalizatuta egon arren hauteskundeetara aurkezteko asmoa daukate, eta EAJ/EARI eta Aralarri zer egingo duten argitzeko eskatu zien. /M.A.



Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxe: 943 792941  
info@eguzkigraf.com  
20550 ARETXABALETA

# EGUZKIGRAF

inprimategia



JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.  
Mitarte, 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**LANAK/** Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko bukatu ditu Larrinorako eta Areantzarako bideen konponketa lan guztiak

# Areantza auzorako bidea konpondu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, azkenean ere

AMAGOIA LASABASTER

Areantzako bidea Larrinokoa baino hobeto egon arren, konpontzeko premia ederra zeukan. Foru Aldundiak aspaldi egin zuen bide bi horiek konpontzeko hitzarmena Udalarekin. Eta Larrinoko bideko lanak egin ostean, orain Areantzakolari heldu diote.

Areantzako bideak geroago eta itxura eskasagoa zuen azkenaldian. Bideko zuloez gain, matxurak gero eta nabariagoak ziren. Areantzarrek bazekiten Foru Aldundiak aspaldi hartu zuela lanak egiteko konpromisoa, baina noiz egingo zituzten zain egon dira orain arte. Azkenean ere, Aste Santuak baino lehenago hasi zituzten bidea zaharberritzeko lanak egiten, eta dagoeneko amaitu dituzte.

### DRAINATZE LANAK

Diputazioko langileak iazko udazkenean hasi ziren errepidea konpontzeko hasierako lanak egiten. Orduan drainatze batzuk egin zituzten, euria eginez gero ura bide izkinetara bideratzeko. Gero, baina, hurrengo lanak egiteko



Lan guztiak amaitzeko marra zuriak margotu besterik ez da falta.

eguraldi onari itxaroten egon ziren, eta, azkenean, udaberrira arte itxarotea pentsatu zuten. Horrela, orain dela hiru aste hasi

ziren bideko zuloak tapatu eta matxurak konpontzen. Joan den astean, berriz, galipot geruza mehe bat bota zuten bide osoan.

### LARRINOKO BIDEA UDALARENAKO

Orain dela urtebete baino gehiago Udalak Foru Aldundiarekin Larrinoko eta Areantzako bideak konpontzeko hitzarmena sinatu zuen. Akordio haren arabera, Diputazioak bi horiek konpondu eta gero, Aretxabaletako Udalak bere gain hartu beharko zuen Larrinoko bidea. Orain, Diputazioak berari zegokion tratua bete ondoren, Udalak hartuko du Larrinoko bidearen jabetza, eta aurrerantzean bide horretan egin beharreko lan guztiak Udalaren ardurapean egongo dira.

### ARKARAZOKO BIDEA

Arkarazoko bidean ere premiazko konponketak egin behar ditu Udalak. Azken euriteek bideko zati handi bat apurtu zuten eta orain arte, beharrezko lanak egin bitartean, udalak behin-behineko lanak egin ditu han. Orain, berriz, ganorazko konponketa egiteko asmoarekin, Udalak Besaide Indusketak enpresari eman dio lanen ardura. Matxuraturatuko zatia konpondu eta lurra eutsiko duen harrizko horma egingo du enpresa horrek. Lanak maiatzean hasi eta ekainean amaituko dituzte.

## LABUR

### Aralar alderdiaren kontrako pintadak egin dituzte

Aralar alderdi politikoaren kontrako pintadak agertu ziren martitzen goizean herriko hainbat kaleetan. Pintadotan Aralar Espainiarekin parekatzen zuten, eta iruzurrik ez egiteko zioten.

### 20 mila eurotik gorako saria jaso du lagun batek

Joan zen zapatuan 20.509 euroko saria irabazi zuen lagun batek Loteriarekin. Gurea tabernan bete zuen saritua izan zen txartela. Ez da Gurea tabernan antzeko saria ematen duten lehenengo aldia.

### Hitzaldia Osasun Pastoraltzak antolatuta

Osasun Pastoraltzak hitzaldiak antolatu ditu. Martitzenean, hiltzeko dagoen gaixoari eta senideei zelan lagundu hitzaldia emango du Diego Millán apaizak Aretxabaletan.

# Aretxabaletatik Euskal Herria Behetik gora, ezkerretik eta bakean

Pertsona guztiak,  
ideia guztiak,  
proiektu guztiak  
... ilegalizazio barik.

ARETXABALETAKO

ARALAR

Bada konpontzeko garaia  
Lizarra-Garazi da bidea  
Elkarrizketa, Suetena, Autodeterminazioa



### PSE-EEK Mari Carmen Atxutegi zerrendaburua aurkeztu zuen

Apirilaren 29an aurkeztu zuen PSE-EEK Aretxabaletako alkategaia, Mari Carmen Atxutegi. Gipuzkoako Sozialisten idazkari Manuel Huertasek egin zuen aurkezpena, eta Mari Carmenekin batera Eskoriatzako PSE-EEko zerrendaburu Iñaki Pierrugues egon zen. Huertasen berbetan, zerrendak osatzeko izan dituzten arazoei eta herri honetan zinegotzi izateak daukan arriskuari aurre eginda erabaki dute aurkeztea.

Mari Carmen Atxutegi zornotzarra da, eta, 1989az geroztik PSE-EEen afiliatua dagoen arren, lehenengo aldiz dago hauteskunde-zerrendan. Euskaraz egin zuen aurkezpena, eta herritarren arazoak konpondu gura dituela esan zuen. Bertakoa ez izateari garrantzia kendu zion. /M.A.

## LABUR

### Lausitta plaza egokituko dute laster baten, oinezkoak erosoago pasa daitezen bertatik

Aretxabaletako Udalak Lausitta plaza egokitzea erabaki zuen orain dela hilabete batzuk. Gaur egun umeek jolas egiteko eta gazteek kirola egiteko jokoak ditu, baina gutxi erabiltzen dituztela ikusita, oinezkoak erosoago pasa daitezen egokitzea erabaki zuten. Asfaltoaren ordez harria jarriko dute, eta eserleku lanak beteko dituen bi magnoliadun bankuak jarriko dituzte. Era berean, argi gehiago jarri eta jolaslekua hobetuko dute.

Lanek ia 85 mila euroko aurrekontua dute, eta maiatzaren 19ko osoko bilkuran erabakiko du udalbatzarrak nori esleitu.

### Dagoeneko kaleratu dituzte Udaleko hirigintza teknikari postua betetzeko oinarriak

Joan den hilean utzi zuen Olaia Etxenautia hirigintza teknikariak bere postua Aretxabaletako Udalean. Ordutik hona postua betetzeko dago, eta Udalak lehenbailehen hartu gura du haren ordezkoa. Apirilaren 8ko aldizkari ofizialean argitaratu zituen, hain zuzen, lanpostua betetzeko oinarriak. Beste baldintza batzuen artean, arkitekto tekniko titulua eta hirugarren hizkuntza eskakizuna eskatzen zaizkio aurkezten denari. Interesatuak Aretxabaletako udaletxera eraman behar dituzte eskaera orriak maiatzaren 19a baino lehen. Gero hainbat proba gainditu beharko dituzte.

### Telekomunikazioen gaineko ordenantza onartu zuten joan den astean

Telekomunikazio enpresek herrian egin gura dituzten lanak arautzen dituen ordenantza onartu zuten joan den asteko ezohiko osoko bilkuran. Ordenantza horren arabera, telekomunikazio enpresei euren proiektuak batera aurkez ditzaten eskatzen zale, eta herrian egin beharreko lanak -kaleak zulatzea hodiak sartzeko, esaterako- guztiek batera egin ditzatela. Horrela, herritarrei ahal den eragozpen txikien sortzea espero dute. Aipatzekoa da Euskaltel enpresa oraintxe dabilela zuntz optikoa sartzan.



# ZARAIA

Goizeko 06:00etatik zuen zerbitzura

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95





### Arritxu Oliden izango da EAJ/EA koalizioaren alkategaia

Joan den egubakoitzean aurkeztu zuen EAJ/EA koalizioak udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda. Iñaki Galdos EAko Gipuzkoako Batzorde Eragileko presidentea eta Juan Mari Juaristi Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentea egin zuten Arritxu Oliden alkategaiaren aurkezpena. Arritxurekin batera Galo Sánchez, Jesus Mari Herrasti, Maitane Urrutia eta Mikel Uribe-tebarria dira EAJ/EA koalizioak aurkeztu dituen lehenengo bost hautagaiak.

Arritxuk ilusio handiarekin hartu du erronka, eta Udaleko alderdi guztien arteko lankidetzari jarraipena eman gura diotela esan zuen. Euren betebeharrak nagusia Udalaren kudeaketa ego-kia egitea izango dela gaineratu zuen, betiere naziozintza utzi barik. /M.A.

## LABUR

### 1936an Espainiako gerran fusilatu zituzten herritarren aldeko mozioa onartu zuten

Apirilaren 28an (astelehena) egin zuten ezohiko osoko bilkuran, 1936ko kolpe militarren ondorioz fusilatutako herritarren aitortza eta ordain moralaren aldeko mozioa aurkeztu zuten. Hilketen bidegabekeria onartzea eta kendu gura izan zieten duintasuna berreskuratzea zituen helburu mozioak. Era berean, ekainaren 8an Arrasaten egingo dieten omenaldian parte hartzea eta ibarreko herrietan egiten dabilzan erakusketa ibiltariari laguntzea ere eskatzen zuen. Fusilatuen senitartekoen eta lagunen batzordeak egindako mozioa aho batez onartu zuen udalbatzarrek.

### Jarduera politikoaren euskal esparru propio baten aldeko hitzarmena aurkeztu zuten

Apirilaren 29an egindako ezohiko osoko bilkuran, etortzeko zegoen alderdien legez kanporatzearen gaineko mozioa aurkeztu zuen Batasunak. Mozioaren bitartez eskatu zuen Batasunaren eta beste alderdi edo eragileren baten legez kanporatze edo zigor juridikorik ez hartzea aintzakotzat, eta ondorioak ekiditeko konpromisoa hartzea. Udaleko alderdien arteko harremana eta jarduera politikoa Udaleko bertako alderdien artean erabaki beharrekoa dela esan zuten. Mozioa Batasuneko zinegotzien oniritziarekin onartu zen, EAJ/EAKo zinegotziak abstenitu egin ziren-eta.

### Bukatu dute Aretxabaletako Institutuan eman duten geriatría laguntzaile ikastaroa

Dagoeneko bukatu da Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek lagundutako geriatría laguntzaile ikastaroa. Langabezian dauden emakumeei zuzendutako ikastaroa izan da, eta hamar emakumek hartu dute parte.

Iaz, azaroan, hasi zuten ikastaroa, eta teoriako eskolak hartzeaz gainera, praktikak ere egin dituzte. Ibarreko ospitaleek eta zaharren egoitzek interes handia agertu dute ikastaro horretan; izan ere, geroago eta zahar gehiago dago.

## ATXABALTARRAK garelako badaukou zer esan...



Aretxa

**B  
o  
z  
k  
a  
t  
u**

**ATXABALTA / EZKERRA / AUTODETERMINAZIOA**

## ELKARRIZKETA

XABIER MENDIZABAL/UDALEKO IDAZKARIA

*“Zer gertatuko den zain gaude, sekula ez dugu-eta legez kanporatzerik bizi izan”*

MIRARI ALTUBE

Dagoeneko hamar urte daramatza Aretxabaletako Udalean idazkari lanetan, eta hirugarren aldiz zaindu beharko ditut udal hauteskundeak. Xabierrek zabalduko digu maiatzaren 25ean Kurtzebarri Eskolako atea.


**Idazkariak zein lan egin behar izaten du udal hauteskundeetan?**

Hauteskunde prozesua ondo doan begiratu edo zaindu behar izaten du. Beste hauteskunde batzuetan ez bezala, udal hauteskundeetan idazkariok daukagu boto paperak egin ditzaten esateko ardura. Bergarako Hauteskunde batzordera eramaten ditugu lehenengo oniritzia emateko, eta gero inprentara doaz.

**Eta hauteskunde egunean bertan zein lan egin beharko duzu?**

Hasieran eta bukaeran egon behar dut. Goizeko zortzietan Kurtzebarri Eskola nik neuk zabalduko dut, eta itxi ere, garbitzailerik ez badabil, behintzat, nik neuk itxiko dut. Botoak zenbatu ostean emaitzak jasoko ditut, eta gero Foru Aldundira deitu beharko dut emaitzen berri emateko.

**Normalean ez da arazorik egoten, ezta?**



M.A.

Beti dago zerbait: botoa eman ostean erroldan ez dela agertzen, botoaren ordeztasun agiria bota duela kaxara... Baina husteriak izaten dira.

**Dagoeneko aukeratu dituzte hauteskunde-mahaietan egon behar dutenak.**

Bai, hala da. 21 lagun egongo dira mahaietan, hiru bakoitzean, eta 42 ordeztasun daude. Hautatuek dagoeneko badakite, eta alegazioak aurkezteko epea aste honetan bukatuko zaie. Badakit, gainera, hautatutako batzuek lehenengo jaunartzeak dituztela.

**Udalan zelan bizi dituzte hauteskundeak?**

Egia esateko, zerrrendekin zer gertatuko den zain gaude; izan ere, orain arte ez dugu legez kanporatzerik bizi izan. Esaten dutenez boto nulua eskatzeko asmoa daukate, eta horiek ere kontatu egingo dira beste nuluekin batera.

**Lau urtean behin aldaketak gertatzeak ez du mantsoztzen Udalaren martxa?**

Mantsotu ez dakit, baina aldatu bai, goitik behera aldatu ere. Pertsonaren nortasunak zeresan handia dauka, eta pertsonak aldatzerakoan lan egiteko era ere asko aldatzen da. Ez da gauza bera, gainera, alkate liberatua izan edo ez, batzordeetan daudenak arduratsuak izatea edo ez... Hori, zein alderditakoak diren kontuan hartu barik.


**Zurrunmuru asko daude azken egunotan Udaleko langileon artean?**

Bai, jakin-min handia dago: zein izango ote den alkatea, zeinek hartuko ote duen sail hau edo beste hori... Eta normala da, eragin zuzena izango du-eta Udaleko teknikari eta langileengan.

**Aretxabaletako emaitzek Azkoitikoek baino eragin handiagoa daukate zuregan.**

Azkoitian bizi naiz, baina hemengo emaitzek eragin handiagoa izango dute nire lanean eta bizitzan hangoek baino.

## TXUTXUMUTXUA



## Alemaniarrak etorri dira Institutura

Alemaniano Weiden herriko Gustav Von Schörl eskolako bost ikasle etorri dira Aretxabaletako Institutura. Leonardo da Vinci proiektuari esker etorri dira, eta aurretik, martxo eta apirila bitartean, Institutuko lau ikasle egon dira Alemanian. Gure artean dauden bost alemaniarrek eskolak jasotzeaz gain, praktikak ere egingo dituzte inguruko enpresetan. Maiatzaren 18an, bestalde, Aretxabaletako Institutuko lau irakasle Erromako Carlo Cattaneo Institutura joango dira. /M.A.

## LABUR

## Datorren aste bukaeran ospatuko ditugu Euskararen Eguna eta Otala-Zelaiko erromeria

Egubakoitzean, maiatzaren 16an, hasiko dugu ospakizunez betetako aste bukaera: Jabier Arrillaga taldeak kontzertua emango du udaletxe zaharrean; zapatuan, ostera, Loramendi EEK urtero antolatzen duen Euskararen Eguna ospatuko dugu; eta domekan, azkenik, Otala-Zelaiko erromeria izango dugu. Egitarau txukuna prestatu digute Loramendi EEK eta Kultura Sailak.

**ANDRA**  
Aholkularitza

**Fiskala**  
**Kontablea**  
**Juridiko/laborala**

2002ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari Auzunea, 3 ARETXABALETA Tel. 943 79 29 26

**TABERNA**

**ARLUTZ**

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

**Jauregi**  
**Okindegia**

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

**IRIARTE**

Umeen denda  
Helduen lentzeria

Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA





# BERRIAK

## Gertu-gertuko informazioa

**Goitb**  
Goiena Telebista

*Ikusiko  
duzu!*

**Egunero,**  
14:30ean eta 15:30ean  
20:00etan, 21:00etan, 22:00etan eta 23:00etan

Aurkezleak:  
**Gorka Etxabe**  
**Maidar Osa**

FUTBOLA

# Aretxabaletako gazte bi Realarekin jokatzen dabilta azkenaldian

Gillen Marrek eta Beñat Etxabek dagoeneko hiru txapelketa jokatu dituzte Realarekin

AMAGOIA LASAGABASTER

**Gillen Marrek eta Beñat Etxabek 11 urte besterik ez duten arren, futboleko trebezia dutela erakutsi dute dagoeneko. Realeko arduradunek ere argi ikusi dute hori, eta horregatik, astean behin, Zubietara eramaten dituzte entrenatzera.**

Gillen Marrek eta Beñat Etxabek Logroñon jokatu zen futbol txapelketa baten hartu zuten parte joan den domekan. Aste Santuko oporretan, berriz, Mallorkan egon ziren, beste futbol torneo baten. Bietan Realeko kamiseta txuri-

urdinarekin irten ziren futbol zelaira. Izan ere, joan den Gabonetan, eskolako futbol saiotan jokatzen zebiltzala, Realeko behatzaile batek talde txuri-urdinean sartzeko proposamena egin zien. Ordutik hona, eguenero, Zubietan izaten dute Realarekin entrenamendu saioa.

**TXAPELKETA**

Gillenek eta Beñatek orain arte eskolako kirol saioetan bakarrik jokatu dute futboleko. Biek ere 11 urte besterik ez dute, eta adin horrekin ezin dute liga ofizialik jokatu. Datorren urtean, berriz, 12 urte izango dituzte eta infantil mailan jokatzeak aukera izan-

go dute. Bitartean, Realarekin txapelketa laburrak jokatzen jarraituko dute. Dagoeneko eginda dute egutegia: hurrengo txapelketa Normandian jokatuko dute; gero beste bat Andorran; eta, azkenik, Canal Plus Txapelketa Madrilen.

**EUSKAL SELEKZIOAREKIN**

Gillenek eta Beñatek, Realean ez ezik, Euskal Selektzioan jokatze deialdia ere jaso dute. Eguaztenean, hilaren 7an, izan zuten, hain zuzen ere, Euskal Selektzioarekin lehenengo entrenamendu saioa. Gainera, euren mailan Realarekin jokatzen dabilta Debaioendar bakarrik dira.



**Parte-hartzaile gutxi baina giro bikaina Ojala Zelaiko 25. krosean**

Eguzkiarekin eta hego-haize beroarekin jokatu zen joan den domekan, hilaren 4an, Ojala Zelaiko herri krosa. Aurten, gainera, Urkulun egiten den lasterketak 25 urte bete ditu. Hori ospatzeko ez zuten aparteko ekitaldirik egin, baina, hala ere, ikusle ugari hurreratu ziren Urkulura. Parte-hartzaileei dagokienez, aurten 85 korrikalarik eman zuten izena; tartean, 11 aretxabaletarrek. /A.L.

FOTOKIROLA



**Gardokik eta Akizuk ez zuten txapelik jantzi**

Gardoki eta Akizu pilotari aretxabaletarrek ezin izan zuten Zaragozako (Araba) Pilota Txapelketako finala irabazi. Partidu ona jokatu zuten, baina Arrasateko bikotea nagusitu zen (18-14). Edozelan ere, trofeoa eskuetan pozik bueltatu ziren. /A.L.

MENDIKO TXIRRINDULARITZA

**Iñigo Roldan aretxabaletarra bosgarren gelditu zen Euskadiko Openean**

Mendiko bizikletako Euskadiko Openearen hamabigarren aldian jokatu zen joan den domekan, hilaren 4an, Arrasaten. Hain zuzen ere, bosgarren jardunaldia jokatu zen. Denera 114 txirrindularik hartu zuten parte norgehiagokan. Elite mailan maila handia egon zen, eta Santi Barranco amurriarra izan zen garailea. Ibarreko onena, berriz, Iñigo Roldan aretxabaletarra izan zen. Iñigok lasterketa bikaina egin zuen eta bosgarren iritsi zen helmugara. Gauzak horrela, orain seigarren postuan dago sailkapen nagusian.

**PARTIDUAK**

**FUTBOLA**  
UDA-Aretxab./Almen  
Gazteen ohorezko liga.  
Zapatua. 16:00. Ibarra.  
**UDA-Intxurre**  
Bigarren mailako gazteak.  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
**PILOTA**  
**Eskoriatza-Aretxab.**  
Gazteak.  
Egubakoitza. 20:00. Esko.  
**Eskoriatza-Aretxab.**  
Nagusiak.  
Egubakoitza. 21:00. Esko.

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**  
Trintxerpe 0 UDA 3  
Preferentea.  
**Axular 1 UDA 4**  
Gazteen Euskal Liga.  
**UDA 2 Sanpedrotarra 1**  
Bigarren mailako kadeteak.  
**UDA 1 Arrasate 3**  
Bigarren mailako kadeteak.  
**UDA 4 Anaitasuna 5**  
Lehenengo mailako kadeteak.  
**Añorga 0 UDA 1**  
Infantilak.  
(Gipuzkoako txapelkun!!!)

**PILOTA**  
**DEBARROKO TXAPELKETA**  
**Aretxab. 22 Antzuola 08**  
Nagusiak.

**Iber**

★ Loteria ★  
✿ Paperdenda ✿  
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

**PAGALDAI**

*Opari denda*  
*Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

*Aretz*

**taberna**

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

**IBARRA**  
estankoa



PRENTSA ETA  
IKASMATERIALA

Egunero zabalik  
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77  
ARETXABALETA

**Martin**  
erloju-denda

*Bere bezeroen*  
*zerbitzura*

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

ERRETRATUZHARRA

# Kooperatibako Txapelketako irabazleak



**L**ana bakarrik ez dela-eta, 1973an Fagor kooperatibako langileek Futbol Txapelketa antolatu zuten. Ibarrean banatuta dauden kooperatibako lantegietako langileen artean osatu zituzten taldeak, eta Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko futbol zelaietan jokatu zituzten partiduak.

Erretratuan Copreci lantegiko taldea agertzen da; eurak izan ziren, gainera, Futbol Txapelketako irabazleak. Izan ere, UDAko preferente mailako taldean jokatuak hiru jokalarik zeuden: Jesus Mari González, Bernardino Oianguren eta Emilio Lizaranzu atezain mondragoetarra; gainerako gehienak gazteen mailan ibilitakoak ziren. "González eta Aldai oso onak ziren, baina Bernardino modurik ez zegoen. Izugarria zen baloia hartzen zuenean. Gaur egun Realean edo Athleticean jokatu zukeen, ez daukat dudarik", dio Luis Mari Otxoak.

Erretratua Santa Agedako futbol zelaietan ateratakoa da, baina finala Zigorrolan jokatu zuten Arrasateko

talde baten kontra. "Kamiseta xeble batzuk erabili genituen, Eskoriatzako futbol taldearenak zirela uste dut. Oso giro polita sortu zen txapelketaren inguruan, baina ez zuten gehiago antolatu. Ni futbolzalea naiz, eta oso pozik hartu nuen parte txapelketan, baina futbol jokalarik izandako asko ez

ziren gustura ibili: lesionatu egin ahal zirela, ez zutela jokatzeko gogorik..." dio Luis Marik.

Erretratuan, goitik eta ezkerreko aldetik hasita, honako hauek azaltzen dira: Emilio Lizaranzu, Angel Arriola, Juan Antonio Urreta, Idigoras eskoriatzarra, Jesus Aldai eta Jose Mari

Roldan.

Behoko ilaran, eta ezkerretik hasita, hauexek: Jesus Mari González, Bernardino Oianguren, Rafael Maizterra eta Luis Mari Otxoa.

Argazkia: Luis Mari Otxoa

- Aitzorrotz elektronika
- Alboka gazte moda
- Ana's jantzi denda
- Angelines autozerbitzua
- Aretxabaleta iturgintza
- Asensio jantzi denda
- Begiondo optika
- Calderon Soledad autozerbitz.
- Errasti kioskoa
- Errekabarren fruta denda
- Ettxabe harategia
- Farma bizi parafarmazia
- Gantxegi harategia
- Gemes edertze aretoa
- Gertu janari prestatuak
- Haurrak umeen moda
- Ibarra estankoa
- Iber loteria
- Imanol janari denda
- Iriarte umeen denda
- Irudi ileapaindegia
- Jauregi okindegia
- Jon harategia
- Josu harategia
- Kixkur ileapaindegia
- L-10 ileapaindegia
- La Brasileña akeita etxea
- Lasai masajeak
- Leibar arraindegia
- Leintz mertzeria
- Leniz liburudenda
- Mari Karmen oinetakoak
- Maritxu mertzeria
- Martin erlojudenda
- Miren Zuriñe bitxitegia
- Nerian loradenda
- Txilarra dietetika
- Xume oihal denda
- Zainduz osasuna/fitnessa
- Zare artegintza
- Zubia oinetakoak



Udaberriak **10** sari utziko ditu Aretxabaletan. Informa zaitez Aretxarteko dendetan!

# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 9a / 123. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: S5200/99

## Eskoriatzar askok hartu zuten parte udaletxe berriaren inaugurazioan

AINTZANE GARDOKI

**Apirilaren 30ean (eguztana) inauguratu zuten Eskoriatzako udaletxe zaharberritua. Herritar askok hartu zuten parte inaugurazio ekitaldian. Dantzariak aureskua dantzatu zuten, eta gero alkate Edorta Zubizarreta udaletxe berriko atea ireki zituen.**

Osoko bilkuren areto berrian udalbatza osatzen duten alkatea eta bederatzi zinegotziak eseri ziren. Lehena berba egiten Edorta Zubizarreta izan zen: "XXI. mendean sartu berri gaudela-eta, Eskoriatzako herriari, denon artean, bultzada berria eman gura diogu, garaian garaiko herria izan dezagun. Eskoriatzak zerbitzu hobekak merezi dituelako, azkeneko urteotan hainbat proiektu gauzatu ditugu; horren adibide dira Udal Biblioteka eta gaur inauguratzen dugun udaletxea bera. Ekimen horien helburua Eskoriatza berria egin eta herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaintzea izan da".

Hamabost hilabeteetan egin dituzten zaharberritze lanetan, oztopo arkitektonikoak kentzeaz gainera, argitasuna eta ikuspegi



Dantzariak ohorezko aureskua dantzatu eta gero, irudi korporatibo berria atzean zutela, udalbatza osoak hartu zuten parte inaugurazio ekitaldian.

zabala lortzea izan da helburua; horixe adierazi zuen lanekin arduratu den arkitekto taldeko kide batek.

Etxe aldatetarekin batera Uda-

lak irudi korporatibo berria gura izan du: "Armarri zaharra oinarri hartuta, kolore berdean Eskoriatza berriarekin bat datorren irudi modernoa egin gura izan



AINTZANE GARDOKI

dugu", esan zuen irudia egiteaz arduratu den AZK taldeko Juanjo Brizuelak.

Ekitaldia amaituta, herritarrek eraikin berria ikusteko auke-

ra izan zuten. Eta herritarrek pozik agertu ziren emaitzarekin. Gero, herritar guztiendako luntxa eskaini zuen Udalak plazan, eta han ere jende ugari batu zen.



### Eguraldia lagun, jende asko Atxorrotzen

"Eguraldia lagun izan dugu, eta aspaldiko urteotan izan den jendetza handiena batu zen Atxorrotzen. Herri bazkarrirako txartel guztiak saldu genituen, eta tabernan edari eta jateko guztiak amaitu egin ziren. Herritarrek patata-tortilla asko egin zituzten. Azken baten, giro ezin hobea egon zen herrian. Aurten ere irabaziak, oraindik kontuak egin barik ditugun arren, Atxorrotz eta herriko gutxitu fisiko eta psikikoaren elkarten artean banatuko dira", esan digu antolatzailer taldeko kide batek. /A.G.

### LABUR

#### Sentikortasun Astea osasun pastoralztatik

Maiatzaren 18an Gaixoen Eguna ospatuko da Gipuzkoako elizbarrutian. Hala, egun hori prestatu eta herritarrengan sentikortasuna pizteko asmoz, Arzoprestate osasun pastoraltzak Sentikortasun Astea antolatuko du. Gaixoen eta gaixoak nola zaintzeko gainera hainbat hitzaldi izango dira ibarreko herrietan. Eskoriatzan *Gaixoari eta gaixoaren familiarekoei nola lagundu* hitzaldia egingo du Marije Goikoetxeak maiatzaren 14an, eguaztenean, kultura etxean, 19:00etan.

## OHARRAK

### MIKEL URDANGARINEN KONTZERTUA KIROLDEGIAN

Gaur, egubakoitza, Mikel Urdangarin abeslari zornotzarrak kontzertua eskainiko du kiroldegian, 22:30ean.

### KONTZEJUPE PLATAFORMAK ANTOLATUTAKO KONTZERTUA

Bihar, zapatua, Arkada Social eta Never Surrender taldeek joko dute gaztetxean, 22:00etan.

### UDABERRIKO KONTZERTUA

Musika Eskolako Bandak Udaberriko Kontzertua eskainiko du domekan, maiatzaren 11n, Herriko Plazan, 13:00etan.

### EUSKAL JANTZIEN ERAKUSKETA

Maiatzaren 4tik 11ra bitartean euskal jantzien gaineko erakusketa dago ikusgai kultura etxean. Orduetgia: 18:00etatik 20:00etara.

### JUANITO OIARTZABALEN DIAPORAMA EMANALDIA

Hilaren 13an, martitzenean, mendizale arabarrak *Lurreko basamortuak* diaporama erakutsiko du kultura etxean, 19:00etan.

## LABUR


### Eskoriatzako Kontzejupe herri plataformak aurkezpena egin zuen eguaztenean

Joan den eguaztenean, maiatzaren 7an Kontzejupe herri plataformak datozen herri hauteskundeetarako zerrendagaien eta landu gura duten programaren aurkezpena egin zuen.

Dorleta Kortazar alkategaia, Aitor Uribetxebarria, Josu Azkarate, Dorleta Lezeta, Lore Diaz de Gereñu, Pedro Lasagabaster, Andoni Bengoa, Jon Gabilondo, J.I. Armendariz, Edorta Zubizarreta, Joseba Gabilondo, Pili Lezeta, Jon Leturiaga eta Edorta Barandiaran dira Kontzejupeko plataformako hautagaiak. Hautagaiez gain, datozen lau urtetan landuko duten programa azaldu zuten. "Batetik, Udalak azkeneko lau urteotan egin duen lanarekin jarraitu gura dugu, eta bestetik, udaletxean sortu daiteken bipolarizazioaren aurrean, triangulaketa bultzatu gura du Kontzejupek, hau da, estatutuaren eta konstituzioaren aldekoen gain, udaletxean autodeterminazioaren aldekoak ere presente egon gura dugu herriko gestioan", esan digu Lore Diaz de Gereñuk.

### Arizmendiko ikasleek Euskal Herri osoko jende ospetsu ugari elkarrizketatuko dute

Almen guneko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetakoko ikasleek egindako irratsaioak apirilaren 28an hasi ziren emititzen Arrasate Irratian. Datorren maiatzaren 27a bitartean, astelehenetan eta martitzenetan, 19:30etik 20:00etara bitartean ikasle-kazetariok egindako saioak entzun ahal izango ditugu. "Komunikazioa dute ikasle horiek ikasgai. Magazin estiloko saioa egiten dute; txisteez, musikaz, bitxikeriez, eta abarrez gainera, elkarrizketak egin behar dituzte. Abel Barriola pilotaria, Lopez Rekarte futbolaria, Izaro Iraeta, Joseina Etxebarria eta Ekon eta La Oreja de VG taldeko abeslariak elkarrizketatuko dituzte, besteak beste", esan digu gazte horien irakasle Eduarne Baltzategik. "Irratigintza lantzen dugu gelan. Ahozkotasuna, eskaleta bat zelan egiten den, jendearekin harremanetan zelan jarri... Hori guztia praktikan jartzeko era polita eskaintzen digu Arrasate Irratiak", gaineratu du irakasleak.



### Iñaki Pierruges, PSE-EEko alkategai

Iñaki Pierruges izango da PSE-EEko Eskoriatzako alkategaia. Halaxe esan zuten apirilaren 29an egindako aurkezpenean. Gipuzkoako Sozialisten idazkari Manuel Huertasek egin zuen aurkezpena Aretxabaletako PSE-EEren egoitzan. Iñaki Pierruges aspalditik dabil politika lanetan. Orain arte Aretxabaletako zinegotzi izan da hainbat agintalditan. Hala ere, bere herrian, hau da, Eskoriatzan, sekula ez du Udalean parterik hartu. Iñakik esan zuen eskoriatzarrendako garrantzitsuak diren gaien alde lan egiteko gertu dagoela./A.L.

# Eskoitzarrok

# maiatzak 25 ien Kontzejupekin

k o n t z e j u p e

# Udaletxea herrira zabalduz


# Aukeratu dituzte maiatzaren 25ean mahaiian egongo diren hiru kideak

AINTZANE GARDOKI

Apirilaren 30ean (eguztana) ezohiko osoko bilkura egin zuten udaletxean. Hala, datozen herri hauteskundeetan mahaiian egon behar duten hiru kideak eta haien ordezkotza izango diren beste sei kide aukeratzeko zozketa egin zuten batzarrean.

Eguerdiko hamabiak pasatxo hasi zuten ezohiko osoko bilkura udaletxeke lehenengo solairuan. Alkatea, zinegotzi bi eta idazkaria egon ziren batzarrean. 18 urteko gorako herriko 211 laguneko izenak zeuden sartuta saskian. Mahaiko presidentek izateko hautagaien kopurua, berriz, 55 lagunekoa izan zen; izan ere, hauteskunde-mahaiko presidentek izateko gutxiengo ikasketak (Lanbide Heziketa II edo Batxilergoa) izatea beharrezkoa da.

Lehenengo, maiatzaren 25eko herri hauteskundeetan mahaiko presidentek izango denaren izena atera zuten: Edorta Aranari egokitu zitzaion. Lehenengo ordezkotza David Fernández izango da eta



Errola osatzen duten herritarren arteko zozketa apirilaren 30ean, eguerdian, egin zuten alkateak eta zinegotziek.

bigarren ordezkotza, berriz, Xabier Beitia. Mahaian egongo diren kide biak, bestalde, Iñaki San Pedro eta

Benita Altuna izango dira. Lehenengoaren ordezkotza Rosarío Arana eta Marieli Otero izango

dira eta bigarren kidearen ordezkotza, Jose Mari Agirregabiria eta Ricardo García.

## ALEGATZEKO EPEA


Mahaian egotea egokitu zaien titularrek eta ordezkotza maiatzaren 10era arte daukate alegazioak egiteko. Horretarako Bergarako Eskualdeko Hauteskunde Batzordera jo beharko dute.

Maiatzaren 25ean, aukeratuak izan diren bederatzi kideek goizeko zortzietan aurkeztu beharko dute eskolan. Aukeratuak hiru titularrek mahaia osatu eta 09:00etatik 20:00etara jardun beharko dute herritarren botoak jasotzen. Zenbaketa egin ondoren, mahaiko presidentek akta jaso eta bake epaileari entregatzen diorean amaituko da euren lana.


Oraingoan, jakina den moduan, hautagai zerrenda bi aurkeztuko dira: lehen PPk, bost laguneko osatutakoa; eta bigarrena bost gaztegarreko osatutakoa: Eugenio Otsoa, J. M. Makazaga, Jon Sasiain, Nerea Maruri eta J. Ramón Pérezek osatutakoa, hain zuzen ere.

Bozkatzeko hauteskunde txartel bakarra egongo da eta herritarrek hamar izenon artean gehienez lau aukeratu beharko dituzte.

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer deritzozu PP alderdia Gatzagan aurkezteari? Zer emango dio herriari?



**IBON OÑEDERRA**  
langilea



**JAIONE VITORIA**  
langilea



**ALBERTO OÑATE**  
langilea



**ITZIAR AZKOAGA**  
langilea



**AITZIBER GOROSABEL**  
langilea



**SUSANA AIAUSTI**  
langilea

Oso txarto, okerrago ezin. Mingarria da. Herriari ez dio ezer onik ekarriko. Atertzaleok berbekin bakarrik ez, ekintzekin ere zer bait egiten hasteko ordua da, bestela aurre hartuko digute eta.

Manipulazio politikoaren aurrean gaude. Aurkeztuak direnak kanpotarrak dira, ez dute herri honen errealitatea ezagutu ere egiten. Zer egin dezakete, bada, herriaren alde? Ezer ez!

Alderdi hau, beste lekutara moduan, politika hutsa egitera dator Gatzagara eta ez herriaren alde lan egitera. Ez zait ondo iruditzen, eta ez dut uste herriaren alde ezer egingo dutenik.

Aurkezteko eskubide osoa duten arren, ez zait bidezkoa iruditzen. Aurreko hauteskundeetan herriari jaso dute boto kopuruarekin ez dator bat. Nire iritziz, ez da esanguratsua.

Ulertezina egiten zait. Ez du inolako zentzurik. Kanpotarrekin osatutako zerrenda batek ez du lekurik Gatzaga moduko herri txikiari. Lau urtez herria guztiz paralizatuko lukete.

Herritar askok moduan ez dut ulertzen. PPK gatzagarrekin aurkeztuko balitu gutxienez... baina kanpotarrak izanik, ez datoz herriaren alde lanik egitera. Ez du inolako logikarik.

**EDURNE**

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

Aranburuzabala 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA

Elektroterapia.

**DAMASTE**

**bedardenda**


Tfnoa.: 943 71 43 27  
ESKORIATZA

**Villar**

Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

# 1. euskal selekzioaren cd-rom jokoa



**eskatu  
orain!**

**902 010 735**  
Telefona 24 orduz.

**Imajina dezakezun guztia!**

Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!

Aukera ezazu taktikarik egokiena

Jokatu:  
Munduko Txapelketa,  
Lagun arteko partiduak,  
sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...  
Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...  
Jokoaren estatistikak  
Jokaldi onenen errepikapenak...  
Lau futbol zelai aukeran.  
Partiduak egunez, gauetz, euriarekin...



**euskal selekzioaren bufanda**  
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,  
72 orduan bidaltze gasturik gabe




**35,95  
euro**

Jokoa orain erosiz gero,  
bufanda eta garraioa

**DOAN**

**GRUPO RKUZ**  
1950-2003

Zure etxea da




Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

